

BATZAR HITZA DELA ETA

Bilbon, 1994ko urriaren 13an

*Jon Esnal Alegria jauna,
Gipuzkoako Batzar Nagusien Lehendakaria.
DONOSTIA*

Jaun agurgarria:

atsegin dut aditzera ematea akademi erakunde honek irailaren 21ean egin-dako osoko batzarrean, besteak beste, zuk ekainaren 29an bidalitako gutuna aztertu zuela.

Euskara Batuko batzordearen txostena entzun ondoren, Euskaltzaindiak aho batez erabaki zuen *batzar* forma hobestea.

Kontuan hartu behar da, izan ere, *batzar* aldakia izan dela Hegoaldean gehien erabili dena, eta Iparraldeko zenbait autore nagusitan ere aurkitzen dela. Gipuzkoari dagokiola, aipa daiteke Oñatiko agiri batean, 1477an, *batzar* forma ikusten dela (“En la junta popular que ellos llamaban *bazaar*”). Iztuetak bi formak, *batzar* eta *batzarre*, erabiltzen ditu, eta azkeneko bi mendeetan *batzar* forma nagusitu da osoki.

Erabaki honen berri beste bi Batzar Nagusiei emango zaie.

Har ezazu gure agurrik zintzoena.

Endrike Knörr,
idazkaria